

## BRUNO ETXENIKE, BONAPARTEREN ITZULTZAILE ETA BIDELAGUN NAFARROAN ZEHAR

*Euskal Filologian lizenziatua eta  
Iruñeko San Fermin ikastolan irakasle  
den Ander Arana Bareño semeari.*

*Iruñea, 1994.03.25*

*J. A. Arana Martija*

Bonaparte printzeaz eta haren itzultzaile eta bidelagunez gaur ematen diren hitzaldiak ez dira lehenbizikoak jauregi honetan. Euskaltzain ohorezkoa zen Errietzuko Jorgek, Kontseilu Foraleko aretoan 1958.eko otsailaren 4ean "El Principe Luis Luciano Bonaparte" hitzaldia irakurri zuen, nik orain bezala Nafarroan egin zituen bidaiei eta izan zituen harramanei lehentasuna emanez.

Bost aldiz etorri zen Luis Luziano Bonaparte Euskal Herrira: 1856, 1857, 1866, 1867 eta 1869 urteetan. Eta azkenean izan ezik, beste lauetan Nafarroatik ibili zen. Egia esan, 1867.eko bidaia udaberrian egin zuen eta udazkenean Nafarroatik beste bidaia bat egiteko asmoa zeukan, hementxo egoera politikoagatik eta jasan izan behar zuen gaixoagatik burutu ezin izan zuena. Nafarroako euskalkiek zalantzak eta kezkek sortzen zizkieten euskararen ikerketetan, eta ondorio zuzenak ateratzeko bere beldurriz edo aholkularien iritzia bilduz froga sinesgarriak lortu nahi izaten zituen.

Aholkulari, itzultzaile eta bidelagunen artean Urdazubin, Axularren jaioterrian, 1820an mundura etorritako Bruno Eugenio Maria Etxenike Garmendia izan zuen Bonapartek. Euskal Herrira 1856an lehen bidaia egin zuenetik agertu zuen Nafarroarekiko atxekimendua. Uztailearen 19an heldu zen Baionara eta abuztuaren 4ean Antoine D'Abbadieri idatzi zion gutunean nafar euskaldunekin harremanetan hasteko gogoia adierazi zion. Berehala erantzun zion D'Abbadiek abuztuaren 7an zera esanez: Charles anaiak Elizondoko euskaldun jator bat ezagutzen zuela, gure Etxenike hain zuzen. Baztango gizon homi eta Aldudeko apaizari dei egin zien Bonapartek Baigorriko Etxaux jauregian abuztuaren 12an elkar ikusteko.

Egun horretan elkar ezagutu zuten Bonaparte eta Etxenikek. Eta inolako luzamenduetan ibili gabe, bertan agindu zion printzeak San Mateoren Ebangelioa Elizondoko baztanerara itzul zezala. Hurrengo urteko udazkenean Bonaparte berriz etorri zenean, Billing-en moldiztegian inprimatuta ekarri zion Ebangelioaren ale bat, itzulpen aldetik hainbat arazo sortuko zituen (1).

Etxenike Elizondoko Datuegaraia jauregian bizi zen garai hartan, baina Gasteizera sarritan joaten zen eta Arabako hiriburu horretan egotaldiak ere egiten zituen, Juan San Martinek dioskunez Ruiz de Alegria anderearekin lehendabizi ezkondua zelako. Prudenzia Meoki anderearekin ezkondu zen bigarrenez. Baina 1856.eko irailaren 6an Bonaparte Gasteizera joan zenean, ez zen Etxenike bidelagun izan, Tolosatik Udabe apezarekin joan baitzen. Hiri horretan zeuden euskaldunekin hitz egiteko madrildar batek eman zion uste gabeko laguntza: Vicente Isac osagilea izan zen laguntzaile hori, lehen Elorrión egonda euskara bertan ikasi zuena.

Eskuizkribuzko egunkari zehatza zeraman aldean Bonapartek eta bertatik datuak hartzeko aukera izan dut. Irailaren 13an, larunbatean, Elizondora heldu zela arratsaldeko 6etan diosku. Igandea eta astelehena ere Datuegaraia jauregian iragan zituen Nafarroako zereginak planifikatuz: euskalki eta azpieuskalkietako itzultzaileak bilatu, liburu zaharrak eta eskuizkribuak bildu, bidaiak antolatu, eta abar. Irailaren 16an Iruñera etorri zen Bonaparte eta hurrengo egunean Tolosako bidetik Baionara itzuli zen (2).

Bigarren bidaiak 1857.eko urriaren 14tik azaroaren 12ra arte egin zuen Bonapartek. Nafarroako euskara aztertzea zen bigarren bidaiak honen helburua. Baina tokian tokiko lanetan hasi baino lehen, Baionan antolatu zuen bilera laguntzaileekin ortografia batuaren arauak finkatzeko, eta hurrengo egunean, urriaren 17an, Berara heldu zen arratsaldeko lau terdietan. Lexikoa biltzeari ekin zion eta gorriz idatzirik honako hitz hauek agertzen dira egunkarian: *Jaungoikua, Jinkua, Trumoya, Argizegiya, lupu, lupua, Marrubill, Surangill, Musker, Negel, Sagarroi, Udare, Madari, Kuku, Bortz, Baitut, Nere, Aitta, Biatz, Lestemia, Armigo, Eskimbel*. Hurrengo goizean, Etxenike bidelagun duela, Elizondorantz abiatzen da. Hona hemen bidaiaren egunkaria:

(1) Euskaltzaindiak argitaraturiko *Opera omnia vasconice* liburuan agertzen da Ebangelio honen itzulpena. Kaleratu ez zen bigarren argitalpenerako Bonapartek eta Etxenikek izan zituzten oztupoak nire *Bibliografía Bonapartiana* liburuan, 477. fitxan aurki daitezke.

(2) Etxenikek Bonaparteri bidalitako liburu eta izkribuetaz, ikus: GONZALEZ ECHEGARAY, Carlos; ARANA MARTIJA, Jose Antonio: *L.L. Bonaparte. Eskuizkribuak - Argitarapenak* 1989, honako fitxak: 64/77, 79, 107, 127, 144, 205, 207, 317.

Urriak 18, igandea: Igantzi, Sunbilla (*Listorra, Chatel*), Donestebe (*Ortots*), Narbarte, Oieregi, Oronoz, Arraioz, Irurita (*Irmí-arma*), Elizondo, bost terdietan heltzen delarik, Etxenikeren jauregian ostatua hartuz. Astelehenean, goizeko bederatzia laurden gutxiagotan Iruñeko bidea hartu zuten Bonaparte eta Etxenikek.

Urriak, 19, astelehena: Irurita, Ziga, Aniz, Almandoz, Arraitzeko Benta (bazkaria, 2,45 / 4) Olague, Astitz, Olabe, Arre, Atarrabia, Iruñea (afaltzeko 7,15 heldu ziren) (3).

Urriak, 20, asteartea: egun osoa Iruñean.

Urriak, 21, asteazkena; Iruñetik goizeko 8,30 atera. Berriobeiti, Añezkar (*Castellano y vascuence* idazten du egunkarian eta *Esan*), Saratsa, Eritze, Irurtzun (*Lañoa = nube, niebla*), Etxeberri (hemen *Vascuence y castellano* idazten du), Etxarren, Egiarreta, Ekai, Zuhatzu, Satrustegi, Hiriberri, Ihabar, Irañeta, Murgindueta, Uharte-Arakil (*Dut, lañoa = nube, niebla*), Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri-Aranatz, Bakaiku (= kaltzera geratu omen ziren, hainbat ohar idatzi zituen eta: *dot (det) dezu, arek du, deu, zek dezéi, aik déi; en, zin duen, zen, ginduen, zindubéin, zein, gu ga (gara), zerái, zian*) Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia, Zior-dia, eta Araban sartuta Agurainera heldu ziren afaltzeko 7,30 tan.

Urriak 22-azaroak 4: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdiko herrietan ibili zen Bonaparte eta ez dut uste Gasteiztik aurrera Etxenike bidelagun izan zuenik.

Azaroak, 5, osteguna: Zaraitzuko euskara aztertzeraz dator Otsagabiara, oraingoan Intxauspe apezka duela bidelagun. Ostegun arratsaldea eta ostiral osoa ematen ditu Zaraitzuko herri honetan, eta larunbatean, goizeko 7,15 tan itzultzen da Baionarat, Euskal Herriko bigarren bidaia bukatutzat emanez (4).

Zortzi urte iraganen dira Bonaparte 1866an hirugarren bidaia egitera etorri arte. Bitarte horretan ez dira Bonaparte eta Etxenekiren arteko harremanak eten. Julio de Urquijok RIEV-en argitaratutako gutunak ikustea aski da. Ehiztari eta arrantzari amorratua omen zen Etxenike. Eta etxe oneko semea. Esku-zabala zen Bonaparte lan-sariak ordaintzerakoan, baina Etxenikek ez zion onartzen dirutan laguntza ordaintzerik. Arrantzarako amuak bidali zizkion printzeak Londresetik 1857.eko abenduaren leian. Gero, urrezko erlojua eta bi pistola ere oparitu zizkion.

Itzulpen lanetan dihardu Etxenikek aldi horretan. Bonaparteren iriziz, Elizondokoa zen Baztango euskalkiaren eredurik onena. San Ma-

(3) Gaztelaniazko grafiaz idazten zituen Bonapartek herrien izenak. Nik hemen Euskaltzaindiak gomendatutako grafia erabili dut.

(4) Otsagabia eta Isabako lexiko konparatu bat agertzen da Bonaparteren paperetan.

teoren Ebangelioa Etxenikek itzuli zuenean, Urdazubiko hizkeratik hartu zituela hainbat hitz eta esamolde esaten zion printzeak, eta Elizondoko propioa nahi zuela argitaratu. Baldintza horrekin onartu zuen Etxenikek Ruth-en liburua itzultzea, baina lana nahi duen bezala burutu dezan, dialektologia eta ortografiako oharrak egiten dizkio printzeak 1861 garreneko uztailaren 22an. Goi Nafarroako Elizondoko euskalkian bost itzulpen aipatzen dizkio Bonapartek Etxenikeri 1861.eko irailaren 7an:

1. Ruth-en liburua, jadanik egina. “Jolie traduction” dela diotso Bonapartek. Ez zuen honek argitaratu eta eskuizkribuetatik argitaratu du Pello Salaburuk.

2. San Mateoren bigarren bertsioa. Honetaz zerbait esan dugu lehen.

3. Jonas-en liburua. 1861.eko abenduaren 11an itzulpena jaso due-la diotso Bonapartek Etxenikeri. Hurrengo urtean inprimatu zuen eta Euskaltzaindiak argitaraturiko *Opera omnia vasconice* liburuan agertzen da faksimila. Pello Salaburuk ere argitaratu du.

4. Salomonen Kantiken Kantika. Jonas-en itzulpenarekin batera jaso zuen Bonapartek itzulpen hau. Ez zuen Bonapartek argitaratu. Pello Salabururen eskutik egina da argitalpena.

5. Apokalipsia. 1862.eko urtarrilaren 5ean jaso zuen Bonapartek Parisen itzulpen hau, baina ez zuen argitaratu. Hau ere Pello Salaburuk argitaratu du.

Bonapartek aipatzen ez duen seigarren itzulpen bat ere egin zion Etxenikek, hots, “Cristau doctrinain declaracioa” Baztango euskalkian eta Elizondoko hizkeran. Hau ere ez zuen Bonapartek argitaratu, baina Pello Salaburuk eman zigun testua *ASJU* aldizkarian, 1986, 3, 817-844 orrialdeetan.

Beraz, Etxenikek egin zituen itzulpen guztiak argitaratuak ditugu une honetan.

Bonapartek Euskal Herrira egin nahi duen hirugarren bidaia 1866.eko urtarrilaren 21etik martxoaren 22ra arte antolatzen du. Orain ere Nafarroan zehar egin nahi duen bidaiarako bidelagun izatea, Otaegirekin batera, eskatzen dio Etxenikeri urtarrilaren 31.eko gutunean. Zaraitzu, Aezkoa eta Erronkariko euskalkiak dira oraingoan ikertu nahi dituenak. Otsailaren 6an burutzen dute bidaia laburra Ainhoatik Urdazubi eta Zugarramurdira. Otsailaren 15ean Gasteizera (5) idazten dio Bonapartek

---

(5) Etxenikeri galdetu zion Bonapartek 1866.05.28ko gutunean noiz arte egongo zen Gasteizen. 1863 urtetik aurrera Elizondon egon zela dirudi.

Etxenikeri zera eskatuz: otsailaren 23.eko gauean Angelun egon dadila, *Carta Lingüística* aztertu nahi du eta. Han biltzen dira Intxauspe, Duvoisin, Uriarte, Etxenike eta Otaegi, Bonaparteren laguntzaile prestatuenak, otsailaren 25ean, egun pare bateko lanean. Otsailaren 27an, Etxenike eta Otaegirekin, hasten du Bonapartek Zaraitzu, Aezkoa eta Erronkariko bidaia. Hala dio egunkariak:

Otsailak, 27: Arnegi, Luzaide, Orreaga, Auritz.

Otsailak, 28: Auritz, Garralda, Arike.

“On horseback”, hau da, zaldi gainean ibili zela lurralde hauetatik diosku, letra gorriz, egunkarian. Garraldan ezagutu zuen Pedro Jose Minondo, herriko maisua, zeinek itzuli zion Asteteren Dotrina, Aribeko ostalaria zen Martin Elizondoren laguntzaz. Garraldatik eraman zituen Bonapartek Jabier Loperenak itzulitako San Mateoren Ebangelioa eta Dotrina bat, argitaratu gabe geratu zirenak. Elizondoren ostatuan egon zen eta lanari ekin zion martxoaren 1, 2 eta 3 egunetan.

Martxoak, 4: Arike, Garaioa, Aburrepea, Abaurregaina, Eaurta.

Zaraitzuko herri honetan agurtu zuen Pedro Jose Samper, apaiza, zeinek itzuli zizkion 50. Salmoa eta Asteteren Dotrina. Honekin eta Franzisko Remondegirekin aztertu zuen Zaraitzuko aditza. Eaurtako apaizaren etxean dihardu zuen lanean Bonapartek martxoaren 5, 6 eta 7 egunetan.

Martxoak, 8: Eaurta, Ezkaroze, Orontze, Espartza, Ibiltzieta, Sartze, Gorza, Erripalda, Igari, Bidankoze.

Prudenzio Hualde Maio, Bidankozeko apaizaren etxean egon zen Bonaparte martxoaren 9, 10, eta 11 egunetan, Ariben eta Eaurtan bezala hiru egun eginez Erronkariko euskalkia aztertzeko. Hualdek egindako Asteteren Dotrinaren itzulpena argitaratu zuen Bonapartek, baina ez San Mateoren Ebangelioarena, gero RIEV-en argitaratu zena (ez osoa) (1934) eta FLV-en itzulpen osoa (1982) Jose Estornes Lasak paratua. Bidankozen beste laguntzaile bat ere izan zuen Bonapartek, Mariano Mendigatza, 50. Salmoa itzuli ziona eta Londresen argitaratua.

Martxoak, 12: Bidankoze, Igari, Gorza, Erripalda, Izize, Galoze, Uskartz, Ustaize, Aizpurgi.

Martxoak, 13: Aizpurgi, Zabaltza, Irurozki, Imirizaldu, Artaxo, Murrillo, Aiantz, Ekai, Agoitz.

Imirizaldutik aurrera “by carriage” edo zalgurdian jarraitu zuela bidaia diosku Bonapartek.

Martxoak, 14: Agoitz, Uritz, Auritz, Orreaga.

Martxoak, 15: Orreaga, Luzaide, Arnegi.

Euskal Herriko hirugarren bidaia honetan Zaraitzu, Aezkoa eta Erronkariko liburu, itzulpen eta datu oparoak bildu ondoren Londresera itzuli zen printzea. Bidaia honetan ikusi dugunez, Klaudio Otaegi eta Bruno Etxenike izan zituen bidelagun. Londresetik 1866.eko apirilaren 12an Etxenikeri idazten dion gutunean, bidelaguntza eskertzen dio.

Hurrengo udaberrian, 1867an, berriz dator Bonaparte Euskal Herri-  
ra, eta oraingoan ere Nafarroara dator. 1867.eko martxoaren 3an Etxenikeri idazten dio laguntza eman diezaion eta Bonaparte Saratik datorre-  
larik Zugarramurdin biltzen dira biak martxoaren 20an. Saratik Zugarramurdira bidaia "à cheval" (zaldi gainean) egin zuela dio prin-  
tzeak, eta Sarara itzulia "à pied" (oinez) egin zuela diosku.

Urte bereko udazkenera arte utzi zuen bostgarren bidaia egitea honetan ere Nafarroa zeharkatzeko asmoa zuelarik. Baina beste lan batetan frogatu nuenez (6) ez zuen bidaia hau burutu. Lapitzez idatziriko proiektu batetan agertzen da printzeak zuen plana:

1867, irailak 2, 3, 4, 5: Urdiain  
irailak 9, 10, 11: Uharte-Arakil  
irailak 19, 20, 21: Lizaso  
irailak 23, 24, 25: Oltza  
urriak 3, 4, 5: Urrotz  
urriak 9, 10, 11: Elizondo  
urriak 13, 14, 15: Bera

Beraz, 1869.eko urtarrilaren 21etik martxoaren 3ra arte egin zuen azken bidaia, bostgarrena izan zen. Baina oraingoan, Espainian zeuden arazo politikoengatik, Donibane Lohizunen geratu zen eta bertan bildu zituen, beste batzuen artean, Elkanoko Jose Jabier Larrainzar, Gareseko Jose Maria Otamendi, Oltzako Juan Martin Ugarte eta Goñiko Vicente Gulina. Hil terdi horretan ez zuen Etxenikerekin egoteko paradarik izan. Londresera itzuli ondoren, apirilaren 8an, Etxenikeri idazten dio aurtan ez ikusteaz izan duen arrenkura azalduz. Baina elkar ikusi ez arren, printzearentzat lanean jaraitu zuen Bruno Etxenike itzultzaile eta bidelagunak.

---

(6) GONZALEZ ECHEGARAY, Carlos; ARANA MARTIJA, Jose Antonio: *L.L. Bonaparte. Eskuiz-kribuak - Argitarapenak*. Euskaltzaindia, 1989. "Prologo", 18-19 orr.